



KANAL ETIKOAREN FUNTZIONAMENDU- POLITIKA

ADMINISTRAZIO-ORGANOAK ONARTUA:

Cristóbal Valderas Alvarado (Administratzaile bakarra)

**Administratzaile bakarra:
ACS SERVICIOS Y CONCESIONES S.L.**

2023ko ekaina

ALDAKETEN KONTROLA

BERTSIOA - IRUZKINEN	ATALAK - DATA
V.0.- hasierako dokumentua	AO-ak prestatua, gainbegiratua eta onartua martxoaren 24ko aktan eta 03/2022 Administrazio Organoan
V.1.- 3.4. puntua aldatzea Mezu elektronikoa kentzea salatzen bide gisa, eta kanal arruntak eta alternatiboak bereiztea	OB-ak prestatua, gainbegiratua eta onartua azaroaren 3ko aktan eta 11/2022 administrazio-organoan
<p>V2 – Berrikustea eta moldatzea arau-haustea jakinarazten dituzten pertsonak babestea eta ustelkeriari aurre egitea arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legea.</p> <p>Indizea berriz zerrendatzea, beste puntu bat sartzea (3.3. Printzipio orokorrei buruz) eta «Zer gertatzen da salaketa bat egiten denean beste kanalen bitartez?» 3.8 puntu zaharra kentzea, atal bakarren batuko baita.</p>	OB-ak prestatua, gainbegiratua eta onartua ekainaren 29ko aktan eta 06/2023 administrazio-organoan

AURKIBIDEA

1.	HELBURUA ETA XEDEA	4
2.	IRISMENA	4
3.	FUNTZIONAMENDU-ARAUAK	5
3.1.	ZER SALATU DAITEKE?	5
3.2.	ZEIN KANAL DAUZKAT?	6
3.3.	ZER PRINTZIPIO NAGUSIK INSPIRATZEN DUTE KANAL ETIKOA?	7
3.4.	NOIZ EMAN BEHAR DA INFORMAZIOA?	8
3.5.	ZER GERTATZEN DA LARRIALDI-KASUETAN?	8
3.6.	ZER INFORMAZIO EMAN BEHAR DUT SALAKETA BAT EGITEAN?	8
3.7.	NIRE BURUA IDENTIFIKATU BEHAR DUT SALAKETA AURKEZTEAN?	8
3.8.	ZER GERTATZEN DA SALAKETA BAT EGITEN DENEAN?	9
3.9.	ZER DA ERREPRESALIEN DEBEKUA?	10
3.10.	ZER ULERTU BEHAR DUGU FEDE ON GISA ENPRESAK ETA SALATZAILEOK?	11
3.11.	NIRE DATU PERTSONALAK BABESTUTA EGONGO DIRA?	11
3.12.	NORTZUK DIRA NIRE DATU PERTSONALEN HARTZAILEAK SALAKETA EGITEN BADUT?	12
3.13.	ZER DA NIRE DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN LEGEZKO OINARRIA?	12
3.14.	ZER DATU BILTZEN DIRA, NOLA GORDETZEN DIRA ETA ZERTARAKO TRATATZEN DIRA?	12
3.15.	ZER ESKUBIDE DITU SALATZAILEAK DATUEN BABESAREN ARLOAN?	14
4.	INDARREAN SARTZEA, INDARRALDIA, JAKINARAZPENA ETA BERRIKUSPENA	14

1. HELBURUA ETA XEDEA

ZAINTZEN, SAREN administrazio-organoak (aurrerantzean, ZAINTZEN edo Erakundea) erabaki duenez, behar diren erabakiak hartuko dira sistema betearazlea (*compliance*) benetan ezartzeko. Haren Kanal Etikoa izango da arau-haustekak jakinarazteko barne-sistemaren oinarri nagusia.

Kanal Etikoaren helburua da bere Kode Etikoan eta Compliance Kudeatzeko Sistema Integrala osatzen duten funtsezko beste dokumentu batzuetan jasotako printzipioak funtsean urratzen dituzten portaerekin lotutako komunikazioak eraginkortasunez jasotzea eta izapidetzea.

Horretarako, Kanal Etikoaren funtzionamendu-politika honek bilduko ditu jasotako jakinarazpenak kudeatzeari eta izapidetzeari buruzko kontuak. Eredu malgua eta azkarra sartuko du, indarrean dauden legeriari, estandarrei eta jardunbide egoki nazional eta nazioartekoei jarraikiz. Ustezko salatzailerek kanalak erabili ahalko dituzte, errepresaliarik edo jokabide kaltegarriak jasatearen beldur gabe, sistema betearazlea urratu dituzten gertaerak aditzera emateko.

Politika honen eta garapenerako barne-araudiaren xedea da kudeaketa profesional konfidentziala, inpartziala eta babesik handienekoa bermatzea prozesu osoan zehar, eta, horri esker, konfiantzazko giroa emango die interesdunei.

Aurrekoaz gain, politika hau lagungarria da informazioaren kultura sendotzeko Erakundearen barnean, interes publikorako mehatxuak saiheste eta antzemate aldera, komunikazio-mekanismo egokiak erabiltzea sustatzeko.

Azkenik, jakinarazteko barne-sistemaren arduradun bat dago (JBSA), eta hura arduratzen da sistema kudeatzeaz eta jasotako jakinarazpenak arretaz izapidetzeaz, politika horretan ezarritakoaren eta hura garatzeko barne-araudiaren arabera.

2. IRISMENA

Politika hau jarduera guztietan aplikatu behar da, eta ZAINTZEN kide guztiek nahitaez bete behar dute, erakundearen barruan duten kargua edo lanpostua, harremanaren izaera juridikoa eta kokapen geografikoa edozein izanik ere.

Bestalde, politika hedatuko zaie hirugarrenei, negozioko kideei, atzerriko eskumendeko enpresei, partaidetza-sozietateei eta ZAINTZENekin lotutako edozer arau-hauste informatu edo jakinarazi nahi duen edozer pertsonari, indarrean dagoen araudiarekin bat eginez.

3. FUNTZIONAMENDU-ARAUAK

3.1. Zer salatu daiteke?

Arau-hauste penal edo administratibo larriei edo oso larriei buruz informatzea, zentzu zabalean; hau da, arrazoizko susmoak, benetako edo ustezko arau-haustek, gertatu direnak edo agian gertatuko direnak, ekintzagatik edo ez-egiteagatik.

Indarrean dagoen araudiari jarraikiz, jakinarazi behar dira:

- a) Europar Batasuneko zuzenbidea hausten duen edozer ekintza edo ez-egite, 2/2023 Legearen aplikazio-eremu materialean ezarritakoaren arabera –otsailaren 20koa, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa–(aurrerantzean, Informatzailea babesteko legea).
- b) Arau-hauste penal edo administratibo larria edo oso larria eragin dezaketen ekintzak edo ez-egiteak.
- c) Politika honetan ezarritakoari helduta, ezar daitezkeen beste edozer irregulartasunaren jakinarazpena.

Jarraian, argigarri gisa, komunikazioaren xede izan daitezkeen gai batzuk aipatuko ditugu:

- ❖ Eroskeria eta ustelkeria
- ❖ Laneko osasunaren eta segurtasunaren aurka doazen jokabideak
- ❖ Interes-gatazkak, lanbide-jardunarekin zerikusia duen edozein ekintzatan
- ❖ Diskriminazioa, bai eta sexu- eta lan-jazarpena ere
- ❖ Barne-iruzurra
- ❖ Lehia desleialeko kasuak
- ❖ Lehiaren defentsaren arloko ez-betetzeak
- ❖ Enpresaren aktiboak behar ez bezala erabiltzea
- ❖ Gure erabiltzaileen osasuna eta segurtasuna erasotzen duten jokabideak

- ❖ Irregularitasunak zerga- eta kontabilitate-gaietan, edo negozioen eta finantza-erregistroen osotasunaren aurkakoak direnak
- ❖ ZAINZTEN interesetan edo hirugarrenen eskubide legitimoetan eragina izan dezaketen informazioak jakinaraztea
- ❖ Zibererasoak
- ❖ Ingurumenaren aurka egiten duten edo hirigintza- eta lurralde antolamenduaren arloko araudia urratzen duten egintzak
- ❖ Giza eskubideen aurkako ekintzak
- ❖ Besteak beste

3.2. Zein kanal dauzkak?

ZAINZTENen, honako **barne-kanalak** daude politika honetan jasotako salaketak egiteko:

- ❖ Horiek jasotzeko, bide telematikoak lehenesten ditugu(*), eta webean eskuragarri daude. Horiez gain, 24 orduko kanal telefonikoa dugu, astean 7 egunez erabil daitekeena. Navex Global Inc. kanpo-hornitzailearen EthicsPoint aplikazioaren webean daude: <https://compromiso.ethicspoint.com>
- ❖ Zuzeneko buruzagi bat edo konpainiaren zuzendari bat.
- ❖ Organo betearazlearen edo Compliance organoaren kidea.
- ❖ Posta bidez honen izenera:

Canal Ético

Parque Empresarial Vía Norte
C/ Quintanavides, 19, Edificio 4 - Plta. 2ª
C.P. 28050 – MADRID

() Kanal telematikoak erabiltzea bultzatuko da arau-hausteak jakinarazteko, edukiaren segurtasunerako, konfidentziasunerako eta osotasunerako, gomendagarriagoak baitira.*

Indarrean dagoen barne-araudiaren arabera kudeatuko da ZAINZTENek beste bide osagarriren batetik jasotzen duen edozer arau-hauste larri edo oso larri.

Barne-kanalez gain, eskuragarri dago informatzailea babesteko agintaritzaren independentearen **kanpo-kanala** eta autonomia-erkidegoetako kanalak edo Europar Batasunaren esparruan horretarako eraturitako kanalak ere bai. Aipaturiko agintaritzaren independenteari edo dagokion organoari aurkeztu ahalko zaio aipaturiko legean jasotako ekintzen edo ez-egiteen inguruko informazioa, zuzenean edo adierazitako kanalen bitartez aurrez jakinaraziz.

Bestalde, **kanpo-kanalak** dituzu, agintaritzaren administratiboek kudeatutakoak, eta horiek erabil ditzakezu jakinarazi behar den arau-haustearen nolokotasunaren arabera; bestak beste:

- Lehia babestearen esparruan – agintaritzaren CNMC
- Balioen merkatuen esparruan – agintaritzaren CNMV
- Kapitalak zurriztearen esparruan – agintaritzaren SEPBLAC
- Zergen arau-hausteen esparruan – agintaritzaren AEAT

3.3. Zer printzipio nagusik inspiratzen dute Kanal Etikoa?

- **Konfidentzialtasunaren printzipioa:**

Esku hartzen dutenen nortasunaren eta lotutako eta emandako informazioaren izaera arautuko ditu printzipio horrek.

Espedientean –ikerkuntzan ere bai– parte hartzeko zilegitasuna duen pertsona orok mantendu behar du jasotako edo ezagututako informazioaren konfidentzialtasuna. Beraz, ezin zaie funtzioa betetzeagatik ezagututako informaziorik eman hirugarren pertsonari, bereziki, datu pertsonalei buruzkorik.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren salbuespena da kasuan nahasitako pertsonekin informazioa partekatu beharra. Kasu horretan, ezagutu behar izanaren printzipioa (*need to know*) errespetatuko da, behar-beharrezkoa eta zilegi denean.

- **Objektibotasunaren eta inpartzialtasunaren printzipioa**

Prozeduran zehar interes-gatazkarik ez dagoela ziurtatuko da.

- **Errugabetasun-presuntzioaren printzipioa**

Salatu guztiek eskubidea dute errugabe gisa tratatua izateko, *arau-haustea* egin

duela egiaztatu arte eta zehapena jarri behar zaion arte.

- **Proporzionaltasun-printzipioa**

Printzipio horrek prozeduran zehar egindako edozer jarduketari heltzen dio, modu arbitrarioan edo neurrigabeen egin ez dadin.

3.4. Noiz eman behar da informazioa?

Informazioa eman behar da salatzaileak arrazoizko arrazoiak dituenean adierazten duen informazioa egiazkoa dela eta arau-haustetzat edo ez-betetzetzat har daitekeela pentsatzeko. Txostena fede onez egin behar da beti.

3.5. Zer gertatzen da larrialdi-kasuetan?

ZAINTZENek dituen kanalen bitartez eginiko salaketak izapidetzeko, hasierako sailkapena egin behar da, eta, horretarako, edukiaren larritasunari eta kritikotasunari heldu behar zaie, haren tratamendua lehenetsi ahal izateko.

Premiazko kasuetan, betiere testuinguruak ahalbidetzen badu, gomendagarria da hierarkian gainean dugunari, JBSAri edo ZAINTZENen araudia betetzeko zuzendaritzari informatzea, ahal bezain laster, kontua ahalik eta modu eraginkorrean izapidetzeko, kudeaketa-prozeduran jasotakoarekin bat eginez.

3.6. Zer informazio eman behar dut salaketa bat egitean?

ZAINTZEN eskertzen du jasotzen duen informazioa ahalik eta osoena, zehatzena eta egiazkoena izatea. Eta horregatik, salaketa jarriz gero, salatzaileak balizko arau-hausteei buruz ezagutzen duen edo eskura duen informazio guztia partekatzeko eskatzen du. Idazketak edo elkarrizketak argia izan behar du, eta salaketaren oinarri den edozein froga edo dokumentu aurkeztu ahal izango du. Horri esker, kasuaren kudeaketa ahalik eta azkarrena eta eraginkorrena egin dezake ZAINTZEN.

3.7. Nire burua identifikatu behar dut salaketa aurkeztean?

Ez da beharrezkoa. ZAINTZEN Kanal Etikoak salaketak modu anonimoan egiteko aukera ematen du.

Hala ere, salaketa bat aurkeztuz gero, haren identifikazioa, funtzioa edo harremana eta harremanetarako datuak emanez, izapidetzeaz arduratzen diren langileak salatzailearekin harremanetan jarri ahal izango dira, jarraipena egiteko, beharrezkoa bada. Ildo horretan, ZAINTZEN ez du onartzen fede onez aurkeztutako

salaketen aurrean errepresaliak hartzea.

3.8. Zer gertatzen da salaketa bat egiten denean?

Kanal telematikoak erabiliz gero, ZAINTZENek zerbitzari ziur bat darabil kanal horien administrazioari laguntzeko, aplikazioko araudian eskatutakoaren arabera. Kanal horien bidez eginiko salaketak zuzenean gordetzen dira zerbitzarian, oso ziurra den horretan.

Zerbitzariak aukera ematen dio salatzaileari:

- ❖ Tokia, data, eragindako sozietatea eta salaketarekin zerikusia duten pertsonak zehazteko
- ❖ Komunikazio anonimoa aukeratzeko
- ❖ Salaketarekin edo komunikazioarekin batera, salaketaren edukia justifikatzen duen dokumentazio euskarria aurkezteko

Kanal telematiko horien bitartez salaketa bat egitean, zerbitzariak kasuaren zenbakia emango dio salatzaileari, eta hark bakarrik erabili ahal duen gako bat ere bai. Kasu zenbaki horrekin eta gakoarekin, salatzaileak saioa hasi ahal izango du salaketen webgunean, bere salaketari buruzko iruzkinak eta/edo eguneratzeak lortzeko. Sistemak aukera emango dio salatzaileari bere txostena aldatzeko edo osatzeko informazio gehigarria emateko.

Garrantzitsua da azpimarratzea zerbitzariak salaketa horiek kudeatzeko baimena duten ZAINTZEN barruko pertsona espezifikoei soilik helarazten dizkiela. Era berean, aurkeztutako dokumentuak maneiatzen dituen barne-taldeak prestakuntza jasotzen du dokumentuak eta salaketak eraginkortasunez kudeatzeko moduari buruz, bai eta konfidentzialtasuna bermatzeko moduari buruz ere.

ZAINTZENek hartu izana adieraziko du zazpi eguneko epean, komunikazioa benetan jaso dela egiaztatu denetik, betiere adierazpen hori egin ahal izan bada.

Hartu izana adierazi denean, salatzaileak bere burua identifikatu badu, ZAINTZENek aukera izango du salatzailearekin zuzenean harremanetan jartzeko, iruzkinak eta eguneratzeak emateko.

Salaketaren izapidetzea arrazoizko epean ebatziko da, gehienez ere hartu-agiritik hiru hilabetera, eta epe hori sei hilabetera luzatu ahal izango da garrantzi edo konplexutasun bereziko kasuetan.

Jarduketa-printzipioari jarraikiz, urratze bati buruz nahikoa zantzu daudenean, edo arau-hauste penal edo administratibo larririk edo oso larririk sor dezakeenean,

ikerketari ekingo zaio, horretarako ezarri den barne-prozedurarekin bat eginez.

ZAINTZEN salaketari buruzko informazioa emango dio salatzaileari, eta, ahal den neurrian, gaiaren ebaluazioaren emaitzari buruzkoa. Kontuan izan behar da, kasu batzuetan, ikerketaren segurtasun- edo osotasun-arrazoiengatik, mugak egon daitezkeela salaketaren ganean eman daitezkeen eguneratzeei dagokienez, barne-prozeduran garatutakoarekin bat etorritik.

Inplikaturako subjektuak babestea esan nahi du laguntzako eta elkartasuneko arazoizko neurriak hartzea, kalterik gerta ez dadin eta politika honetatik eratorritik diren printzipioak bermatzeko, betiere jarduketan fede onez egin bada.

3.9. Zer da errepresalien debekua?

ZAINTZEN ez da inolako errepresaliarik onartzen. Horren barruan sartzen dira mehatxua edo politika horrekin zerikusia duten ekintzak fede onez salatzen dituen pertsona bat beldurtzeko beste edozein modu.

Errepresalien aurkako babesa agintari eskudunei kanpotik egindako arau-haustek fede onez salatzen dituzten pertsonen ere zabaltzen zaie. Politika honek errepresaliaren debekua ezartzen die pertsona hauei:

1. Salatzailearekin zerikusia duen beste edozein pertsona (lankideak eta senideak, esaterako), lan-testuinguru batean errepresaliak jasan ditzakeena.
2. Salatzaileari salaketa-prozesuan lagundu dion edozein pertsona.
3. Salatzailea laneko edo lanbideko testuinguru batean jabe, lan egiten edo beste modu batera lotuta duen edozein erakunde juridiko.

Errepresalien debekuak salatzaileari kalte egin diezaioketen edozein ekintza edo ez-egite hartzen du bere baitan, zuzeneko zein zeharkakoa, balizko arau-hausteen fede oneko salaketa dela eta. Adibidez, ZAINTZEN ez du salatzaileen aurkako neurri hauetako bat ere hartuko, fede oneko salaketa bat aurkezteagatik:

1. Etetea, kaleratzea, kargugabetzea edo neurri baliokideak
2. Errendimenduaren ebaluazio negatiboa
3. Sustapena ukatzea
4. Lantokiaren kokapena arrazoirik gabe aldatzea, soldata murriztea, lan-ordutegia aldatzea

5. Hertsapena, larderia, jazarpena edo ostrazismoa
6. Diskriminazioa, tratu desabantailatsua edo bidegabea
7. Aldi baterako lan-kontratu bat ez berritzea edo aldez aurretik suntsiaraztea
8. Kaltea, baita pertsonaren ospeari ere, bereziki gizarte-baliabideei dagokienez, edo finantza-galera, negozio-galera eta diru-sarreraren galera barne
9. Ondasun- edo zerbitzu-kontratu bat aldez aurretik suntsiaraztea
10. Baimen bat ezeztatzea
11. Errepresaliatza har daitezkeen beste neurri batzuen artean

ZAINTZEN edozein pertsonak, politika horren aurka, zuzenean edo zeharka errepresaliak hartzen baditu, ZAINTZEN berak hartuko ditu beharrezko neurriak errepresaliak lehenbailehen bertan behera uzteko, eta, hala dagokionean, diziplina-neurriak hartuko ditu horien arduradunen aurka.

3.10. Zer ulertu behar dugu fede on gisa enpresak eta salatzaileok?

Salatzailearen ikuspuntutik, fede onak esan nahi du salaketa jarri behar dela, eta, gutxienez, arrazoizko arrazoiak izan behar direla informatzeko unean jakinarazitako balizko arau-hausteei buruzko informazioa egiazkoa zela uste izateko.

Enpresaren ikuspuntutik, horrek esan nahi du ez duela inolako errepresaliarik hartuko salaketa bat aurkezteagatik, eta salatzailearen pertsonaren konfidentzialtasuna eta identitatea babestuko duela beti, legeak, bere modalitateetan, agintaritza judizial edo administratibo bati jakinarazteko eskatzen duenean izan ezik.

3.11. Nire datu pertsonalak babestuta egongo dira?

Bai, babestuta daude.

ZAINTZEN intimitatea, segurtasuna eta datuen kontserbazioa zorrotz babesteko konpromisoa hartzen du, horretarako sortutako eta gure webgunean argitaratutako gure politikan zehazten den bezala.

Arau horiek politika honen arabera egindako salaketekin lotutako datu pertsonal guztiei ere aplikatuko zaizkie.

3.12. Nortzuk dira nire datu pertsonalen hartzaileak salaketa egiten badut?

Salaketa batengatik jasotako datu pertsonalak tratatu ahalko dira edo jakinarazi ahalko zaizkie honako aldeei, beharrezko bada:

- ❖ Navex Global, Inc. salaketa-kanal telematikoak kudeatzen dituen hirugarren independentea, tratamenduaren arduraduna baita.
- ❖ Jakinarazteko barne-sistemaren arduraduna, ZAINZENen *compliance*-organoa delako.
- ❖ ZAINZEN ordezkari baimenduak, ikerketan parte hartzen dutenak, salatutako gertaeren izaerak edo irismenak parte hartzea eskatzen badu»
- ❖ ZAINZEN jakinarazpena ebaluatzen, gaia ikertzen edo ZAINZEN gaiaren inguruan aholkuak ematen laguntzeko kontratatatu den ikertzailea, aholkularia edo kanpo-kontseilaria»
- ❖ Zergen Ministerioa, agintari judiziala, polizia eta beste agintari arautzaileak eta legearen arabera aplikaziokoak direnak.

3.13. Zer da nire datu pertsonalen tratamenduaren legezko oinarria?

Kanal Etikoaren esparruan, tratamenduaren oinarri juridikoak dira konpainiaren betekizun legala betetzea, irregulartasunak jakinarazteko barne-sistema bat izateko, *arau-haustek jakinarazten dituzten pertsonak babestea eta ustelkeriari aurre egitea arautzen duen otsailaren 20ko 2/202 Legearen arabera.*

Hortaz, informatzailearen datu pertsonalen tratamendua behar-beharrezkoa da salaketa kudeatzeko eta aipatutako xedek eta legearen eskakizunak betetzeko. ZAINZENek inola ere ez du erabaki automatizaturik hartuko, bidalitako datuetan oinarrituta.

3.14. Zer datu biltzen dira, nola gordetzen dira eta zertarako tratatzen dira?

Datu pertsonalak tratatzeko ZAINZEN xedea

Une oro, ZAINZEN etikaren, legezkotasunaren edo arau korporatiboen aurkako irregulartasunei edo egintzei buruzko salaketak kudeatzeko, izapidetzeko eta ikertzeko eta salatutako egitateak ikertzeko beharrezkoak diren jarduerak

gauzatzeko soilik tratatzen dira datu pertsonalak, eta, hala badagokio, dagozkion diziplina- edo lege-neurriak hartzeko. Datu pertsonalak ez dira erabiliko adierazitakoa ez den beste helburu baterako.

ZAINTZEN jasotzen dituen datu pertsonalak

Politika horren arabera egindako salaketak izapidetzean, ZAINTZEN honako datu pertsonal hauek eta salaketa bat egitean eta haren ikerketan emandako informazioa biltzen ditu:

- Izena eta harremanetarako datuak (salaketa anonimoa jarri ezean) eta ZAINTZEN langilea ote zaren.
- Salaketak aipatzen dituen pertsonen izena eta beste datu pertsonal batzuk, informazio hori ematen badu (hau da, funtzioen deskribapena eta harremanetarako datuak).
- Komunikazioan jasotako edozein datu edo informazio, pertsona jakin bat identifika dezakeena.

Datu pertsonalak gordetzea

ZAINTZEN jasotako salaketa guztien erregistroa egingo du. Erregistro horiek eta bertan dauden datu pertsonalak isilpean gordeko dira.

Erregistroak gordeko dira une bakoitzean aplikaziokoak diren legearen eskakizunak betetzeko behar beste denboraz, eta, ez da gaundituko, inola ere ez, hamar (10) urteko epea.

Zehazki, ZAINTZEN salatzaillearen datu pertsonalak gordeko ditu salatutako gertakariei edo jokabideei buruzko ikerketa hastea bidezkoa den erabakitzeke behar den denboran, eta, erabakia hartu ondoren, Kanal Etikotik kenduko dira, eta sistematik kanpo tratatu ahal izango dira gertakariak ikertzeko, amaitu arte. Behin komunikazioaren ikerketa amaituta, eta, hala badagokio, dagozkion ekintzak eginda, bideratu diren salaketen datuak behar bezala blokeatuta mantenduko dira, kasu bakoitzean dagozkion legezko betebeharrak betetzeko.

Nolanahi ere, datu pertsonalak kanal etikotik ezabatuko dira sartzen direnetik gehenez ere hiru (3) hilabeteko epean, epe gehigarri baterako gordetzen badira izan ezik, legezko eta sozietate-betebeharrak betetzeko beharrezkoa delako, eta kanal etikotik kanpo tratatzen jarraitu ahal izango da, salaketaren ikerketa amaitu ez bada, hura amaitu arte.

Jarritako salaketa ez bideratzea erabakitzen bada, informazioa modu anonimoan gorde ahal izango da.

3.15. Zer eskubide ditu salatzaileak datuen babesaren arloan?

Informatzaile gisa, salaketa jartzen duen pertsonak edozein unetan eta araudi aplikagarrian aurreikusitako baldintzen barruan balia ditzake berari dagozkion datu pertsonalak.

Pertsona horrek uste badu datuak ez direla zuzenak edo ez direla osoak, datuak zuzentzeko eska dezake, aplikatu beharreko legeriaren arabera. Datuak ezabatzeko eska dezake, dagoeneko beharrezkoak ez badira, datuak gordetzeko legezko betebeharra badago izan ezik.

Era berean, zure datu pertsonalen tratamendua mugatzeko eska dezakezu, haren aurka egin, edo zure datuen eramangarritasuna eskatu, eta baimena kentzeko eskubidea izango duzu.

Horretarako, **rgpd-zaintzen@zaintzen.eus** helbidera idatzi beharko duzu. Zuzenbidearen arabera baliozko modu batean adierazi beharko duzu zure nortasuna, eta gaian aipatu beharko duzu «Eskubideak baliatzea» esamoldea, eta zer eskubide erabili nahi duzun zehaztu beharko duzu.

Zure eskubideak gauzatzearekin pozik ez bazaude, erreklamazio bat aurkez dezakezu Datuak Babesteko Espainiako Agentzian.

Informazio gehiago duzu pribatutasun-politikan, eta hura eskuragarri dago korporazioaren webeko Kanal Etikoaren atalean.

4. INDARREAN SARTZEA, INDARRALDIA, JAKINARAZPENA ETA BERRIKUSPENA

Politika hau dokumentu hau onartu, aldatu edo eguneratzen den egunean bertan sartuko da indarrean.

Argitaratu eta zabaldu egingo da, behar bezala ezagut dadin, eta web korporatiboaren bidez egongo da eskuragarri eta kontsultagai.

Oro har, ZAINZTEN bere informazio-sistema dokumentatua ezarritako aldizkakotasunarekin berrikusiko du edukia, eta ohiz kanpo, baldin eta lege-, antolamendu- edo beste edozein izaerako inguruabar esanguratsu gertatzen badira, berehala egokitu eta/edo eguneratzeko.